

Sinu eta kosinua ariketa egiteko urratsak:

1. Koordenada-ardatzak erdira eraman.
2. Luzatu X eta Y ardatzak (halako 4 gutxienez)
3. Zirkunferentzia bat egin: erdiko puntua (0,0) eta beste puntua (1,0)
4. Zirkunferentzia finkatu: B puntuan eskuineko klik, propietateak, oinarrizkoa, objektu finkoa aktibatu.
5. B, a eta c izenak ezkutatu ditugu. Eskuineko klik – Erakutsi etiketa.
6. Segmentu bat egingo dugu hasierako puntua (0,0) eta luzera (1) emanda.
7. C puntua gora eramango dugu.
8. C puntutik pasatzen duen X ardatzaren zuzen perpendikularra egingo dugu.
9. b puntua ezkutatu dugu.
10. Perpendikularra eta ardatzaren elkartze puntua markatu dugu.
11. A eta D puntuen artean segmentu bat egingo dugu.
12. C eta D puntuen artean beste segmentu bat egingo dugu.
13. DAC angelua erakutsiko dugu.
14. AD segmentua izendatu dugu berriro: sin. Eskuineko kliketa izendatu berriro.
15. AD segmentua izendatu dugu berriro: kos
16. sin segmentua gorri margotuko dugu: Propietateak – Koloreak eta lodituko dugu: estiloa (8)
17. kos berdez eta 8ko lodiera.
18. C puntua zirkunferentzian zehar mugituz balioak emango dizkiogu α angeluari eta algebraren leihoan sinu eta kosinuaren balioak ikusiko ditugu.

